

ANGELUKO IKASLEAK.

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1995-1996.

HAMABOSTGARREN ERAKASPENA 29

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GALA-

1. Zer dira gillotinaren kentzaiten zerak.
2. ----- " ----- atxiketzeko zerak
3. Eman bi alderdien zerak.

GILLOTINA .3.

Bati edo bertzeri, huts eginik, hobendun ez denari, uste-gabean, lephoa motz, eta lepho hura ez ditakela berriz sorbalde josi; bizi dena, urtheak ondoan ere, presondigitik jalgi ditakela, etzela hobendun ezaguarerakin; hil bat ez dezakezula pitz.

Hoi oro hola, batzu kontra, bertzeak alde, oraiko huntan ez dire nausitu deputatuen bilkuran gillotina kendu nahi luketanak. Ehun bat eta zenbeit bozez joan dute bertzeak.

Gure departamendukoetarik, Barthou ministroa zen bakarrik, bere ministro lagun guziekin, kendu nahi zutenen alde. Bertzeak bertze alderat oro.

Gorri beltz aitzinatuenetarik has, eta xuri²⁵ eztiuenetaraino, batzuz alde, bertzeak kontra, bat ere alderdika ari gabe, eman dute boza, ba edo ez, bakotxari zoakon bezala.

Gaizki erran dut: gorri aitzinatuenak oro edo kasik-oro kentzeko ziren. Gorri eztiak eta xuriak dire bi aldetarat joan; eta halere gillotina nausitu.

Tresna itsusia balin bada izan bedi, nahi bezen itsusi; den bezalakoa delakotz da haren beharra, justiziak izan dezan larderia eta indar; gillotinaren urrunera ikusteak *ikhara* eman dezoten, orori bada, bederen zenbeit gizon hiltzalei.

Ezta erraiteko baizik: badire bi apez deputatu; bat Lemire, buru baino bihotz gehiagoren jabe dena; bahez ura eman bailezokete, gogotik, egarri diren guziei; bertze batzuek hitzemaiten dautzuten, hunek eman orori; ba eta saskiz arno ere, ahal balu. Bera xede onez bethea delakotz, uste bertzeak ere hala direla. Gillotina khen zezaten eman du boza.

Bertze apez deputatua da Gayraud. Hau buruz azkarrago da, xuxenago, ez delarik bihotz gabea. Hau ere kordokatu²⁶ bide dute aphur bat gillotinaren kentzea hobe zela ziotenek; dudaturik egon da bozik eman gabe, zoin alde eman ez jakinez omen.

Bi aldetarat arrazoin handiak badire, alde batetarat baizik ez bailitake, ez balitz jendea tzartzen ari, eta gizon-hiltzaleak emendatzen urthetik urthera.

Hura khendurik hauk are gehiago emenda-eta, non ginintazke?

fontje

LEMIER député Nord (1893-1921)
 Abbé GAYRAUD (1897-1911) ... Ministre
 Louis BARTHOU (1861-1934)
non Ponceau

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Nahi zuketena 32. Zoakon bezala.
 33. Dezoten 34. Bailezokete.

31 UKAN. Potentiel probable. Imparfait

- Nik nukeen = je pouvais l'avoir
 Hek nukeen = tu pouvais l'avoir
 Zuk zinueen = vous pouviez l'avoir
 Harek zukeen = il pouvait l'avoir
 Guk ginukeen = nous pouvions l'avoir
 Zuek zinuekten = vous pouviez l'avoir
 Heiek zuketan = ils pouvaient l'avoir.

32. JOAN. Régime indirect. Imparfait

- (Nor → Nori) Hura zoan = il allait
 Hura (lue) zoakitan = il m'allait
 zoakizun = il vous allait
 zoakion (zoakon) = il lui allait
 zoakizun = il nous allait
 zoakizuen = il vous allait
 zoakiten = il leur allait

33 UKAN. Conj. à dble cplt. Subj. Présent.

O. S. - C T. Singulier. Hari = à lui

- Nik ukan diezotan (pour) que je le lui aie
 Hek " diezokan = " que tu le lui aies
 Zuk " diezozun = " vous le lui ayez
 Harek " diezon = " qu'il lui ait
 Guk " diezogun = " nous le lui ayons
 Zuek " diezozuten = " vous le lui ayez
 Heiek " { diezotan = " qu'ils le lui aient
 { diezoten = " qu'ils le lui aient